



Urretxu
2013 Azaroa
120.alea

K S IXO

2.orrian
AYUDAS DE
EMERGENCIAS

6.orrian
IGERILEKUA

7.orrian
LANGABEZIARI
AURRE

8.orrian
ELKARRIZKETA:
Julian Mantxola

10.orrian
TESTIGANTZAK
BILTZEN

11.orrian
BUZOIAK

12.orrian
MEJORA EN LOS
BARRIOS

14.orrian
FESTAK

4.orrian

ORDENANTZA
FISKALAK:
JUSTIZIA
SOZIALAREN
BILA



* Ayudas de Emergencias



{ El Ayuntamiento se hará cargo para cubrir el presupuesto anual

La decisión del Gobierno Vasco, atendiendo a las recomendaciones del Ararteko, de ampliar los márgenes para las Ayudas de Emergencia Social, ha traído consigo que sean muchas más las familias que se han podido beneficiar de este tipo de subvención. Sin embargo, la decisión del Ejecutivo de Lakua no ha venido acompañada por un aumento presupuestario para esta partida lo que, lógicamente, ha traído consigo que la cantidad presupuestada a tal efecto no sea suficiente para hacer frente a todos los gastos.

Concretamente, en Urretxu ya se han gastado 40.364,77 euros cuando estaban presupuestados 39.000, con lo que se hacen necesarios en torno a 13.000 euros más, una cantidad que el Ayuntamiento está dispuesto a asumir, ajustando otras partidas, al entender que este tipo de ayudas son de una prioridad total.

KAIIXO
UDAL ALDIZKARIA
120.alea

Lege Gordailua: SS/678/93

Konposaketa eta diseinua: Gattiken

Erredakzioa: Jon Ormazabal eta Gattiken

Inprimaketa: ANTZA Tirada: 3.300 Ale

KAIIXOk ez du derrigorrez bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

KAIIXO no se identifica necesariamente con las opiniones de sus colaboradores, ni se hace responsable de las mismas.

Más información/informazio gehiago:
www.urretxubiziz.com/kaixo



Carga de los 13.000 euros necesarios de las Ayudas de Emergencia Social

Las AES son unas ayudas que se reparten desde los Servicios Sociales del Ayuntamiento para que aquellas familias con dificultades para hacer frente a necesidades básicas puedan realizar pagos concretos.

La mayor parte de estas ayudas están enfocadas a hacer frente a gastos para el mantenimiento de los

hogares, ya sean gastos corrientes como agua, gas o electricidad, o pagar alquileres e hipotecas.

En total, durante los tres primeros trimestres del 2013 han sido 44 las familias urretxuarras que se han acogido a las AES.

Aunque cada realidad familiar es todo un mundo, los datos de las ayudas ofrecidas nos hablan de que más de la mitad de estas ayudas han sido repartidas a las personas nacidas en Euskal Herria, concretamente un 54% de las mismas. El 27% serían para la ciudadanía procedentes del Estado español y el 17% extranjeros.

La mayor parte de las titulares de estas ayudas sociales siguen siendo mujeres y en cuanto al estado civil de estas familias, mayormente, se trata de parejas separadas.

Para acceder a estas ayudas no existen plazos y los interesados deben solicitar cita en los Servicios Sociales del Ayuntamiento, donde se estudiará cada caso individualmente y acorde a las condiciones existentes.

Datos interesante:

44 han sido las unidades familiares receptoras en 2013.

Solicitudes recibidas por ámbitos

alquiler	15
intereses de amortización	8
otros gastos de mantenimiento	43
mobiliario y electrodomésticos	1
reparaciones e instalaciones	1
necesidades primarias	4
endeudamiento	0

Abonado por concepto

alquiler	12.141,40 €	11
intereses de amortización	6.514,75 €	9
otros gastos de mantenimiento	21.498,62 €	40
mobiliario y electrodomésticos	0,00 €	0
reparaciones e instalaciones	0,00 €	0
necesidades primarias	210,00 €	4
endeudamiento	0,00 €	0

Unidades familiares receptoras

Zergak, tasak eta prezio publikoak

Zergak, tasak eta prezio publikoak ez dira soilik dirua biltzeko tresna bat: politika ekonomiko aurrerakoiak, herritarren bizibaldintzak eta justizia sozialean sakontzeko erremintak ere badira.

Horregatik, garrantzitsua da ekitatea, progresibitate eta birbanaketaren aldeko apustuak egitea: gehien duenak gehiago ordaintzea, gutxien duenaren mesedetan.

Tasa eta prezio publikoen ordenantza egiterakoan, bi ardatz nagusi hartu dira kontutan:

1.- Krisi egoera.

2.- Zerbitzu publikoek jasangarritasunaren arduradutela.

Herritarrei zuzenean eragiten dieten zergak eta tasek % 1,5-eko igoera izango dute (KPI/IPC-aren azpitik, %1,9 EAEn).

Hondasun Higiezin Zerga (IBI)

1.- Etxebizitza arruntari dagokion ogasun higiezin zerga aurten izoztu egingo dugu, eta industrialari eta rustikoari, aldiz, %1,5a aplikatuko diogu. Progresibitate markatua du, gutxien duenari deskontuak egin ahal izateko, gehien duenari gehiago kenduta. Familia batek hiru ume izateak ez du esan nahi botere adkisitibo baxua duenik, eta alderantziz, umerik izan ez arren, esklusio sozialean bizi diren herritarrak ere baditugunez, familia ugarien hobariari diru sarrerren korrelazioa erantsiko diogu.

2.- Etxebizitza hutsen errekarroa: %75. Helburua hutsik dauden etxeak identifikatzea eta alokairua sustatzeko mekanismoak martxan jartzea da. 2014. urtetik aurrera, promotoreek hutsik dituzten etxebizitzetxe salbuespena kendu eta errekarroa ezarriko diegu.

SARRERA GORDINAK

	Otik 24.000 eurora	24.000 tik 50.000 eurora	50.000 eurotik 80.000 eurora
3 seme-alaba	% 90 ↓	% 50 ↓	% 15 ↓
4 seme-alaba	% 90 ↓	% 70 ↓	% 40 ↓
5 seme-alaba +	% 90 ↓	% 90 ↓	% 60 ↓


Iharduera Ekonomikoen gaineko Zerga (IAE)

Fakturazioa milioi bat eurotik gorakoa dutenek ordainduko dute gehien. Etekin negatiboa dutenek %25eko hobaria dute eta kooperatiben moduko egitura soziala dutenek edota nekazaritza elkarteek %25eko hobaria izango dute. Azkenik, krisialdi sozioekonomiko egoera honetan, enplegua sortzen duten enpresak %25eko hobari bidez sarituko ditugu.

I.A.E.	KOOPERATIBA ETA NEKAZARITZA ELKARTEAK (%25)	ENPLEGU SORKUNTZA (%25)	ETEKIN NEGATIBOA (%25)
EZKIO-ITSASO	X	X	X
LEGAZPI	X	✓	X
URRETXU	✓	✓	✓
ZUMARRAGA	X	X	X

Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga (IVT)

Gehien kutsatzen dutenek eta potentzia altuko ibilgailuek gehiago ordainduko dute. Kotxe elektrikoek eta hibridoek hobaria izango dute: %75ekoa. 25 urtez gorako automobilek eta kotxe historikoei orain arte jasotzen zuten %100eko hobaria kendu egingo zaie, aurretik aipatutako ingurumen irizpideekin bat ez datozelako.



Iruzur fiskalaren aurkako neurriak ere hartuko dira. Udala saia-
kera berezi bat egiten ari da, akatsak edo fede txarreko jarrerak
identifikatzeko, eta higiezin zerga ordaintzen ez duten etxebizitzak
eta eraikinak kontrolatzeko.

Informazio gehiago:
www.urretxu.net



Uztaila historikoa «Urretxuko hondartzan»

17.615 sarrera izan dira igerilekuan uztailean, inoiz-ko daturik altuena.

Erabiltzaileak

urtea	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Denera
2013	1.244	17.615	3.554	990	23.403
2012	4.448	11.421	7.132	1.277	24.278
2011	5.596	6.161	5.838	2.229	19.824
2010	5.338	12.784	6.277	2.231	26.630
2009	9.221	15.445	7.305	1.588	33.559
2008	3.885	14.318	6.834	566	25.603

Sarreraren salmentak €-tan

urtea	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Denera
2013	1.211	22.985	4.127	749	29.073
2012	5.185	13.475	9.427	1.278	29.365
2011	6.435	6.097	6.988	2.081	21.602
2010	2.276	6.421	3.728	974	13.400
2009	5.296	8.313	4.297	706	18.612
2008	2.137	10.592	6.570	265	19.565

2013-an saldutako sarrerak

Ikasle eta langabetuak	477
helduak	3.200
Umeak	6.540

Egunerokotasunetik ihes egiteko, atsedena hartzeko eta aisialdiaz gozatzeko lekuak izaten dira hondartzak. Itsasorik ezean, Urretxuko igerilekuak egiten ditu azken urteetan zehar Urretxuko hondartzaren lanak eta, eguraldiak eguraldi, Pagoeta auzoko instalakuntza hau aurten ere sekulako ihesbidea izan da urretxuar eta inguruko herritar asko eta askorentzat.

Instalakuntza oso berezia da Urretxuko Udal Igerilekua, eguraldiak erabat baldintzatzen baitu bere jarduna. Urte guztian zehar mantentze lanak eskatzen dituen arren, klimak lau hilabetez baino ez du erabiltzen uzten eta udan ere, erabilpen hau oso mugatua da.

Aurtengo erabilera datuek sekula baino hobeto erakusten dute eguzkiak instalakuntza honengan duten eragina. «Uda oso arraroa izan dugu, ez da batere orekatua izan. Ekaina oso txarra izan da, ekainean oraindik etxe batzuetan ia berogailua jarrita geunden eta gero uztaila sekulakoa izan zen, inoiz ez da horrenbeste jende ibili eta, nolabait esatearren, denboraldia salbatu digula esan genezake», adierazi dio KAIXOri Miguel Cristobal, udaleko kirol teknikariak.

Alboko tauletan ikus daitekeen modura, sekula ez da aurtengo zazpigarren hilabetean bezainbeste jenderik joan igerilekura eta, salmenten sarreraren ere, inoiz baino diru gehiago jaso da, beste hilabeteetako jaitsierak nolabait konponduz. Hala ere, nabarmendu behar da igerilekuaren urteko gastua 90.000 €-tik gorakoa dela.

Momentu zehatzetan jende asko bildu da igerilekuan eta honek zenbait arazo ere ekarri ditu berekin, hala nola sistema informatikoaren gainkarga eta belardiek behar bezalako atsedetik hartu ezin izana.

Arazoak arazo, beste behin ere argi geratu da, eguraldiak laguntzen duenean, Urretxuko igerilekua herritarren aisialdirako instalakuntzarik garrantzitsuena dela, batez ere gaztetxoenen kasuan.

* Langabeziaren zama arinduz

Urretxuko Udalak 11 lagun kontratatuko ditu hurrengo egunetan



Langabezia da krisi ekonomikoa latz honek utzi digun zamarik gogorrenetako bat. Udalen eskumenek muga asko dituzte alor honetan, baina Urretxuko Udalak bere aletxoak jarriko du datozen egunetan, iraupen desberdineko hamaika lanpostu eskainiz.

Eusko Jaurlaritzak langabetuak kontratatzeko iaz egindako partida murrizketaren aurrean, Gipuzkoako Foru Aldundiak diru laguntza programa bat martxan jarri berri du eta programa horren baitan, Urretxuko Udalak hiru langabetu kontratatu ahal izan ditu, herrilanak egiteko eta instalazio publikoak mantentzeko. Lana bost hilabeterako eta lanaldi osokoa izango da eta kontratatutakoek egin beharreko lanak herrilanak eta instalazio publikoak mantentzeko zerbitzuak, eraikin publikoak eraberritzeko lanak egitea, eremu hondatuak lehengoratzeko jarduerak eta berriz hiritartzeko lanak egitea... izango dira.

Baina programa honetaz harago, bada betetzeko beste posturik. Esaterako, Urretxuko Udaleko funtzionario-langileen zerrendan, Garapen Iraunkorreko teknikari lanposturako plazari

basogintzan eta nekazaritzan oinarrituriko ikuspegia eman nahi zaio. Honetarako, irizpide tekniko hauek izango dituen perfila lehenetsiko da, aldi baterako zen postua egonkortuz. Honen helburua, Urretxuko lehen sektoreari behar duen garrantzia ematea da, erdi ezkutuan zen sektorea eguneroko garapen estrategikoan txertatuz. Postu hau oposizio-lehiaketa sistema bidez erabaki da eta deialdiaren oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Bestalde, azaroaren lehen asteburuan ospatu den Mineralogia Astearen baitan, beste zazpi lagun kontratatu ditu, hiru egunez, haurren tailerretako begirale gisa aritzeko.

Amaitzeko, eskura dugu UGGASaren gidaritzarekin eta eragile sozioekonomikoekin batera iaz eskualde mailan martxan jarritako ENPLEGU MAHAIK osatutako enplegu plana. Horixe izango da hain zuzen ere Eusko Jaurlaritzaren enplegu sustapenean dirulaguntzetarako deialdira aurkeztuko ditugun proiektuen giltzarria.

«Krisiarekin jende gaztea erakarri dezakegu»



Julian Mantxola (Zabaleta baserria) Urretxuko baserriar bat da. Lehen sektoreak gure herrian bizi duen egoeraz galdetu diogu, eta ez du erantzuna ezkutatu. Jende gaztea behar du sektoreak, eta krisi garaia lan egiteko erabili behar dela uste du.

Zein da lehen sektorearen egoera Urretxun?

Lur jota dago. Ez du irteerarik. Jendea lehen sektorea uzten ari da, atzetik ez dator inor, eta kalera jaisten ez den baserri-tarrak esplotazioak uzten ditu. Hori da ikusten ari dena. Geroz eta okerrago dago egoera, garbi gainera. Guztiok esaten dugu. Jende zaharra dago baserrietan eta jende gazteak ez dio hel-tzen. Jaietan egiten den baserriarren bazkariko adinaren batzabestekoa ikusi besterik ez dago!

Zenbat esplotazio daude Urretxun?

Dozena bat izango dira, baina guztietan egongo da beste diru sarreraren bat. Gehienbat haragitarako behiak daude hemen, eta esne behiak. Gero, guztietan dago zer edo zer gehiago, oilaskoak edo barazkiren bat, baina azken havek, normalean, etxerako.

Zein dira arazo nagusiak?

Baserriarren arazo handiena, etekinik ez dagoela da. Lana badago, baina etekinik ez, eta jendea gauza xamurragoetara doa. Orain arte fabriketara zihoazen, baina egungo krisiarekin eta lehen sektoreari irteera bat ikusiz gero, agian itzuliko li-rateke baserrietara. Baina hori lortzeko beste modu batera egin beharko litzateke lan. Ekoizten diren produktuei euren prezioa eman behar zaie. Kostuaren azpitik saltzen dugu gehienbat eta laguntzak daudelako mantentzen gara. Laguntzak geroz eta gutxiago dira, eta gainera, tristea ere bada laguntzetatik bizitzea. Baserriak, produktuez gain, gizartearentzako beste lan bat ere egiten du, ekosistemari begira. Guztiek onartzen dute hori, baina ez dago aitortzarik.

Bertatik Bertara proiektuak zertan lagunduko du?

Oraingoz proiektu bat da, egin gabe dagoena. Hainbat herritako pertsonak biltzen gara, eta hortik proiektua aterako da. Nk uste, orain dela hau egiteko garaia. Krisiarekin, jende gaztea, baserria gustoko duena, erakarri dezakegu. Lur batzuk prestatu eta komertzio txiki batean salmenta zuzena bideratuz, zerbait atera daitekeela uste dut. Baina jende gaztea eta berria behar ditugu. Etorkizuna badagoela saldu behar dugu, egun ez dagoena.

Eta instituzioek zein paper dute?

Elkarrekin joan behar dugu. Zutabea baserritarra da, baina udalen eta aldundiaren aldetik babesa behar da. Eskualdeko herri batzuetako udalak apustu hori egiten ari dira, eta orain proiektu bat sortu behar da.

Uste duzu kaletarrok badakigula gure herriko baserrietan zein lan egiten den?

Ez. Jendeak ez daki. Nahiko kritikoa naiz gai honetan, baina jaietan eta antzerakoetan, lehengo baserrietan gauzak nola egiten ziren erakusten da. Oso ondo dago hori, baina indar guztiak lehengora begiratzen jartzen ditugu, pasatakoarekin, eta etorkizunari ez badiogu indarrrik ematen, alfer alferrik gabiltza. Kaletarrek badakite zertan ibili ziren lehengo baserrietan, nola bizi ziren, baina ez dakite zertan gabiltzan egun. Egungoa ez da erakusten, eta aurrera begiratu beharra dago. Bestela, euskal estanpa batzuk izango dira.





36ko Testigantzak biltzen

Urretxuko eta Zumarragako udalek emaniko beka baten barruan, 1936ko Gerrari lotutako testigantzak biltzen hasi da 'Memorian Atzera' lan taldea.

Informazio hori bideoz grabatutako elkarrizketen bidez jasotzea da euren asmoa, eta jada bi herrietako 25etik gora bizilagun elkarrizketatu dituzte. Garai hura bizi izan zuten pertsonak elkarrizketatu nahi dituzte, baina baita garai hura bizi ez zuten, eta etxean edo inguruan informazioaren bat jaso duten pertsona horiek ere. Guztiak elkarrizketatu nahi dituzte, historia ahalik eta aho gehienetatik kontatu asmoz. Bideoz grabatuak izan nahi ez dutenek ere, beste bide batzuetatik partekatu dezakete informazioa lan taldearekin: idatzitako elkarrizketak, gutunak...

Gerrari edo honen ondorioei lotutako dokumentazioa ere jaso nahi dute, hala nola, argazkiak, aktak, egunerokoak, gutunak, epaitegietako dokumentuak...

Harremanetarako:

- Telefonoa: 686 72 07 84609 435 302
- Emaila: memorianatzera@gmail.com
- Bilerak: Asteazkenero 17:00-18:00, hileko lehen bi asteazkenetan Zumarragako Zelai Arizti kultur etxean eta azken bietan, Urretxuko Aizpuruena kultur etxean.

Dentro de una beca convocada por los ayuntamientos de Zumarraga y Urretxu, el grupo de trabajo 'Memorian Atzera' ha empezado a entrevistar a vecinos y vecinas de los dos pueblos. El objetivo es la recopilación de los testimonios grabándolos en video. Tanto el testimonio de personas que vivieron directamente los acontecimientos, como el de aquellas a las cuales les fueron transmitidos posteriormente. Aquellas personas que prefieran no ser grabadas en video, podrán transmitir su experiencia mediante otros medios: entrevistas escritas, cartas...

Asimismo, desean reunir todo tipo de documentación posible sobre la guerra, tales como, fotografías, actas, diarios, cartas, documentación judicial...

Una vez copiado este material, el original será devuelto a su propietario.

Para contactar:

- Teléfono: 686 72 07 84609 435 302
- Email: memorianatzera@gmail.com
- Las reuniones: Cada miércoles de 17:00 a 18:00, los dos primeros miércoles de cada mes en la casa de cultura Zelai Arizti de Zumarraga y los dos últimos de cada mes en la casa de cultura Aizpuruena de Urretxu.

Buzoiak herritarren eskura



Urretxuko hainbat auzotan buzoiak jarri ditu Udalak, herritarrei euren gomendioak, kezak edota iradokizunak egiteko gertuko aukera bat emateko asmoz. Honekin batera, urretxubiziz.com webgunean atal bat ireki da, ekarpenak internetez egiteko aukera emanez.

Oraingoz, bide berriak martxan jarri eta hilabetera, 63 ekarpen jaso dira. Askotariko ekarpenak dira, eta udala guztiak erantzuten ari da. Kontakturako bidea jarri dutenei, erantzuna zuzenean helaraziko zaie, eta, kasu guztietan, webgunean eta auzoetako panel informatiboetan jarriko dira galderak erantzunak, egilearen anonimotasuna bermatuz.

Buzoiak eta panelak honako auzo eta kaleetan jarri dira:

Buzoiak: Ipeñarrieta, Aparizion, Mundo Mejoren, Madayan eta Areizagan.

Panelak: Ipeñarrieta, Aparizion, Mundo Mejoren, Madayan, Areizagan, San Martinen, Santa Bárbara auzoan eta Labeaga aretoaren sarreran.

Jaso diren ekarpen guztiak webgunean irakur daitezke, udal ordezkariak erantzun ahala. Erantzunak ere auzoka paneletan jartzen ari dira, herritarren eskura. Gai asko landu dira eskaeretan, hala nola, hirigintza lanak, kirol ekitaldiak edo azpiegiturak prestatzeko eskaerak, garbiketari lotutako kexa eta iradokizunak, jaien ingurukoak... Guztiak aztertzen eta erantzuten ari da Udala.

Galderak eta erantzunak irakurtzeko:

<http://urretxubiziz.com>

Mejoras barrio a barrio



A petición de los vecinos y las vecinas se han puesto papeleras y bancos en el **barrio Mundo Mejor**. Se ha arreglado un contenedor y pavimentado el acceso a él. También se ha avisado a la empresa que se encarga de la limpieza para que acentúe su trabajo en el barrio. Asimismo, se estudiará el posible uso del depósito por los vecinos y las vecinas, creando para ello una comisión especial con la vecindad.



En el **barrio San Martin**, se aprecia una mejora en la limpieza tras las gestiones del Ayuntamiento. Se está actuando en el tema de las ratas, y se ha pedido a los usuarios del Gazteleku que cuiden la limpieza de su entorno. Se ha colocado por tercera vez el pivote para que nadie aparque en la curva sobre la acera, puesto que las dos veces anteriores lo rompieron. Se está estudiando la queja por la cantidad de setos, y se valora positivamente habilitar una zona para que los vecinos que así lo quieran, puedan plantar lo que estimen oportuno. Se han podado algunos árboles que tapan la luz de las farolas, y se han arreglado las baldosas. En julio se puso un tablón de anuncios entre el supermercado y el portal nº 13, y el ayuntamiento estudiará la posibilidad de comenzar a trabajar en el compostaje de barrio.





En el **grupo Santa Bárbara**, se ha puesto una rampa en la acera, y se está estudiando la alternativa a las escaleras de acceso a cada portal, puesto que construir una rampa supone una pendiente demasiado pronunciada y peligrosa, además de contraria a la normativa. En la limpieza se ha constatado una mejora y se han arreglado las paredes que limitan el barrio.



En cuanto a las peticiones de los vecinos y las vecinas del **barrio Aparicio**, el ayuntamiento se ha reunido con el Gobierno Vasco para activar las medidas que se deben exigir a Arcelor. El único compromiso conseguido es la activación de la mesa de seguimiento de esas medidas. Se informará al barrio según haya avances. Se valora una mejora en la limpieza y se preguntará sobre la frecuencia con la que pasan las máquinas y se solicitará que pase también el barrendero para limpiar esas zonas. Se han hecho mejoras en el alumbrado y se ha instalado un espejo para la incorporación de vehículos a la carretera.



Urretxuko festak: parte-hartzearen ikur

Beste urte batez, Urretxuko festak parte-hartzearen isla dira. Udal gobernua- ren ustez, balorazioa «oso ona» da.

Jende askoren parte hartzeaz gain, hainbat elkar- lan dinamikaren abiapuntu izan dira aurtengo festak eta horiek oso ondo baloratu ditu udalak. Ekitaldi guztietan euskarak izan duen presentzia txalotu du, datozen urteetarako hobetzeko hainbat puntu na- barmentzearekin batera, hala nola, hainbat ekitaldi- etako koordinazioa.

Festen antolakuntzan parte hartu duten pertsonen balorazioak ere jaso ditu udalak. Hauen artean, dene- tariko ekarpenak jaso dira.

Gazteei dagokienez, aurten, Jai Batzordean indar bi- ziz sartu den kolektiboa da. Egitaravean, larunbatak eskaintzen dizkien ekitaldi urriak aipatu dituzte, da-

tozen urteetan osatzera begira. Helduentzako, berriz, larunbatak ekitaldiz betetako egitarau oparoa du. Abelgorri lehiaketan egin diren aldaketak oso ondo baloratu dira. Martxoko eta Abenduko feria bereziak kendu, eta arlo honetako ekintzak festetan bateratu dituzte aurten, eta erantzuna oso ona izan da. Hala, jaietan egin ziren lanabes zozketa eta txekorraren pisaketa eta guneak parte hartzean eta bisitari ko- puruan gora egin du. Idi probekin gertatutakoa ere aztertuko du udalak.

Gazteengana itzuliz, estreinekoz antolatzen zi- ren asteleheneko jokoak oso ondo baloratu dituzte, datozen urteetarako koordinazioa hobetzea ere erronka gisa hartuz. Olinpiaden antolakuntzan eman

den hobekuntza ere nabarmendu dute gazteek, eta antolatzaileak oso gustura agertu dira emaitzarekin. 'Gazte Bidean' zebitzuarekin izaniko elkarlana nabarmendu dute, eta gazteek, datozen urteetarako trebezia probak gehiago landu behar dituztela.

Koordinazio guneekin jarraituz, Lekaioaren, gastronomia lehiaketaren, ganadu feriaren eta karrozeroen artekoak fruituak eman ditzakeela uste dute inplikatuak. Igande goizean jendetza ibili zen Lekaio antolatutako gunean.

Gastronomia lehiaketan hiru koadrilek ezin izan zuten parte hartu espazio faltagatik, baina antolaketarekin gustura agertu dira parte hartzaileak. Hemen ere, karrozeroen eta koadrilen bazkariekin koordinazioaren bat egon zitekeela pentsatu dute.

Hiru gune hauek badute beste puntu amankomun bat festetan: birziklapenaren maila baxua. Hurrengo urteetarako gaia aztertuko du udalak, irtenbideak bilatu asmoz.

Ez dira hauek Udalak jaso dituen ekarpen guztiak. Txistularien kontzertua beti bezain ederra izan zela, hotz egiten zuen arren; txupinazoa ere jantzia eta bete-a izan zela, jende asko erakarritz; jaiek sinbolo bat behar dutela, edota karrozen desfilea luze egin zela ere jaso diren ekarpenen artean daude.

Udalak eskerrak eman nahi dizkie jaien antolakuntzan parte hartu eta ekarpenak egin dituzten pertsona guztiei. Harro gaude herri honetako lanketan parte hartzeko aukera izateaz.



AUZO-BUSA

URRETXU IRISGARRIAGOA
URRETXU MÁS ACCESIBLE

D 65 urtetik gorakoek, 5 urtetik beherako umeez
R eta mugikortasun murriztukoek
O (eskatu txartela udaletxean)
A *Para las personas mayores de 65 años,*
T *las menores de 5 años y las de movilidad reducida*
I *(solicitar la tarjeta en el ayuntamiento)*
N *S*

**Gainontzekoentzat 10 bidaiako
bonoak udaletxean salgai**

*Para el resto, bono para 10 viajes a la
venta en el ayuntamiento*

3€

*** Autobus honetan adineko jendeak, mugikortasun
murriztukoek eta auzotarrek dute lehentasuna**

*En este autobus tienen preferencia las personas de la 3ª edad,
las de movilidad reducida y l@s vecin@s de los barrios*